

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Getaria San Pedro

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Ondartxo auzoan jaioa, aita ere bertakoa zen. Aitak Euskalduna lixiba-lantegi txikia zeukan etxe azpian eta ikatza ere saltzen zuen. Ama donostiarra zen. 4 senidetan zaharrena zen Juanita. Mojetan ibili zen eskolan, eta euskaraz egiten zieten han. Gerra hasi zenean, aita gudari joan zen eta beraiek Bilbo aldera egin zuten ihes. Bueltan, aitak 4 urte egin zituen Ondarretako kartzelan. Juanita 12 urterekin neskame joan zen izebaren etxera, eta 14rekin Pekin lantegian hasi zen lanean; 16 urte egin zituen han. Gerora Lezon bizi izan zen, senarrarekin.

Zintak

ERR-049

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-29
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Aitareen tailerra

- **Erref:** ERR-049/002
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:01:16. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Ondartxo auzoko lauzpabost solairuko etxe batean jaio zen. Aitak tailer txiki bat zuen bertan, "F´brica de lejías Euskalduna", eta ikatza eta lixiba saltzen zituen. Gerra ostean preso eraman zuten, ordea, eta familiak urte gogorrak igaro zituen.</p>

Transkripzioa

- Zuen etxia zenbat pisukoa zen?
- Ba, nik usten dut bost bat; lau behiñipin bai. Ez nago ziur, e? Biño lau bai. Gero bajuak haundiyak izaten zian lehenago, ta han zakan nere aitak, ba, saltzen zun ikatza, leja... “Fabrica de lejías” orduan, “Euskalduna”.
- Eta aitak iten zun, berak iten zun leja?
- Bai, berak eta, ez dakit, norbaittekin, biño bai, bai, beak itten zittuen.
- Zer zitun langilleak bere kargu?
- Ez, nik uste dut izango... nere... pentsatzen det, izaunak. Onbre, zerbait emango ziyoen, biño esan nahi dizut fabrika haundi bat ez zen, ez zen / etzen/.
- Enpresa familiarra?
- Bai, bai.
- Ta zure aita nungua zan?
- Nere aita Lartzabalen jaiua. Lartzabal.
- Nun dao hori, Lartzabal?
- Ba, Oiartzuna joteko, Arragua. Ez duzu izautzen? Han dago...
- Baiño Erreterria da?
- Erreteritik ya Oiartzun aldea. Han zen futboleko kanpo bat ere, biño oain denak etxe berriyak in dittuzte han ere, oseake dena dago desberdiña. Dena ya dago... Eta ama Donosti.
- Ama donostiarra?
- Bai.
- Biño ez dakit non jaio zen. Ta non bizi zen ere... ez dakit. Aittana asko juten giñalakoz. Baserriya zen eta asko juten giñan hara. Biño amana ez naiz gogoratzen.
- Eta amak dendan iten zun lana?
- Ez, nere amak etxian, etxian. Bai.
- Zuek zenbat senide ziñeten?
- Lau.
- Ta zu zenbatgarrena?
- Zaharrena. Gero anaia, gero ahizpa, eta beste ttikiya. Ni jaio... o... ez, ni bizi hogeita bat urte eramaten diyot nere ahizpa ttikiyai, asike hue izandu da neretzako jostaillua. Bai. Eta gehio ez gea izandu; labak, labak. Bizi gea labak; anaia Erreterriyan, beste ahizpa Madriden eta nere ahizpa ttikiya hemen, Donostin, Bidebietan. Eta ni hemen.
- Esan dezu aitak ikatza partitzen zula.
- Bai.
- Eta nola partitzen zun? Bazeukan karrorik ala manduakin, kamioia...?
- Ez, ez. Nik pentsatzen det, zeatikan nik beai aittua, klaro —ta badakit non zagon ta dena, e, biño—, nik usten dut karretilla izango zutela. Ta zakua bete ta. Nik hala pentsatzen det. Ez, ez zen... fabrika zen, ba... tailler bat. Lehen hola. Ta, onbre, asko zen orduan. Asko zen.
- Ta badakizu nora eramaten zun ikatza? Etxez etxe partitzen zun ala beste fabriketara?
- Nik usten dut jendia hara jungo zela billa, gaiñea. Ta ziur nago hala zela. Adibidez, beak eramango zittun noizipeiñian behin zakokada bat, biño gehiegi ez dut uste. Ez dut uste, e? Ez dut uste.
- Eta leja iteko zer erabiltzen zun?
- Nik [badakit itten zula], “Euskalduna”, “Lejía Euskalduna”. Eta oso ona emen zen, beti beai aittua. Biño orduan ni oso ttikiya nitzen, ta gero kanbiatu in giñan beste bizitzara´re. Bai.
- Orduan, aitak lan hori utzi in zun eta beste zerbaitekin hasi zan?Ala jublatu in zan?
- Ez, aittak... aittak gero... gerra etorri zen. Eta handik etorri ta kartzelara

jun zen. Eta gero, ba, gaizki pasa genuen. Aber!

2. Haurtzaroko oroitzapen onak

- **Erref:** ERR-049/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:05:48. **Bukatu:** 00:07:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Haurtzaroko oroitzapen onak ditu Juanitak. Eskolako moja euskaldunak ditu gogoan, baina hamabi urte betetzerako eskola utzi eta lanean hasi zen.</p>

Transkripzioa

- Gerra aurretik...
- Ez, nik gerra aurretik... nere anaia han jarri zen ta bai, gue... nola esaten da? Ttikitassuna? Leike hola esatia? Ona izandu zen neria behiñipin, nahiko ona.
- Haurtzaroa? Ume garaia ona?
- Bai.
- Ta zu eskolan...?
- A! Eskolan, bai, euskeraz. Monjetaa juten giñan, ta orduan monjak ere zien, ba... monjak eta prailliak eskola nahiko... Bai. Ta euskeraz itten genuen dena, biño gero ya bukatu in zen.
- Eta monjak, orduan, bazekien euskeraz?
- Bai, bai.
- Eta nungua zan ba?
- Monja? Ez dakit, ez naiz bate gogoratzen. Monja asko zien han. Frantsesez-ta ematen zuten. Ez dakit, ez nizuke esango. Gezurra ez dizut esango. Hori bai ez dakittela.
- Eta zer ikasten zenuten?
- Dotriña asko. Dotriña asko. Eta, gaiñea, nik... nola esaten da? Erdaraz esaten dute "las lecciones básicas", utzi in behar izan nun.

3. Aita Kartzelan eta Juanita lanera

- **Erref:** ERR-049/004
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:07:06. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita lau urtez preso izan zuten Ondarretan. Ama etxe-garbitzen ibiltzen zen eta laster batu zitzaion Juanita bera ere, 9-10 urte besterik eduki ez arren.</p>

Transkripzioa

- Zegatikan gu gero, gerra hasi zen, Bilboa jun giñen, handik etorri eta aitta belaxe eman zuten, esan dizuten bezela...
- Kartzelara?
- Kartzelara.
- Nora eraman zuten?
- Ondarretaa. Lau urte pasa zittun han. Asike gero nahiko lana. Eta orduan nik nittun, ba, beetzi-hamar urte. Ta amak lan asko in behar zun. Ni zaharrena nitzan eta, ahal genun bezela, gogor bizittuak. Biño...
- Amak zer in zun aurrera ateratzeko?
- Interina esaten genuen, etxetara; etxe batera, bestera... Eta ni're gero izebana jun nitzan, hamabi urte nittula, biño dirua ekartzea.
- Neskame?
- Neskame. Neskame.

4. Hamalau urterekin Erretereriako Pekin fabrikara lanera

- **Erref:** ERR-049/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:11:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Hamalau urterekin Erretereriako Pekin lantegian hasi zen beharrean eta bertan jardun zuen ezkondu bitarte. Gerora ere hainbat lanetan aritua da.</p>

Transkripzioa

- Eta beelaxe hitz ein genuen fabrika batian. Pekin. Ez dakit aittua dakazun. Erretereriyen famosua izandu zen hua're, Bueno, gehienak famosuak zien Erretereriyen. Hamalau urte in nittunian, bezperan deittu ziaten. Ni txoratu nitzan, txoratuta. Handikan, hamasei urte in dittut han, ta handikan ezkondu.
- Ta zein zan zure lana Pekin fabrikan?
- Danatik: "tornillaje", "baquelite"... denetik. Hola, gauz preziso bat... Denbora asko egondu nitzan ni tornillo batzuek itten. Pollitta zen, nahiko pollitta zen. Biño garbiya ez, e? Biño... bueno, han ondo egondu giñan. Lagun asko giñan, gaztiak, "muchos pajaritos"... Biño lan asko in behar genuen. Handikan atera're ta nahiko lana in nun nik gero, e? Ofizinak garbitzen ta denetik, denetik.
- Ta han, Pekin fabrikan, neskak asko ziñeten han lanian?
- Bai, fabrika haundia zen. Bai. Mutillak eta neskak. Nik uste dut neskak gehio izango giñala. Pentsatzen det, e. Ez dakit. Haundiya zen. Biño gu, badakizu, gu beti leku batian, eta goikuak... denak izautzen giñan, danak, biño gue bizimodua gue lagunakin eta gue planak itten genittun gue lagunakin.
- Eta legez posible zen hamalau urtekin lana itia?
- Bai. Nere senarra sartu zen, jakingo duzu /jakingozu/ zuk, "de botones" sartu zen litografi batian. Eta emen zen... bueno, nik izautzen nuen, zeatikan ni bizi nitzan onduan lana itten zuten han. Eta sartu zen, usten

dut, hamabi urtekin. Gero eskolara joaten zen, biño lanian ya. Klaro, esan emen zuten gezura. Bea zea emen zen, mutil kozkorra, ta, klaro, egondu zen bi urte, ba... hamabi urtekin. Han bazakiyen, e! Biño bai, posible zen, posible zen. Guk hamalau. Zergatik ni gogoratzen [nak] esan geniyola hamahiru urte nittula eta noiz itten nittun hamalau. Ta [...]. Ez ziaten belaxe deittu, biño oso axkar. Lana orduan oso aisa izaten zen, gaiñea. Buu! Bai. Ez, biño ez... ni [...] ez, e? Beti konforme egondu naiz han. Bai. Zegatikan behin biño gehio esaten genuen: “Frantzira jungo gea! Oso lana polittak emen dia han”. Biño ez, ni ez nitzan mugitzen hortikan. Igual ari naiz txorakeriyak esaten.

- Ez, ez! Oso ondo ari zea.

5. Pekin fabrikako lanak eta lan baldintzak

- **Erref:** ERR-049/006
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:11:14. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Torlojuak eta halakoak egiten zituzten Pekin fabrikan eta bereizita aritzen omen ziren emakume eta gizonak. Zortzi orduko lanaldia zuten normalki, baina baita hamabikoa ere, lan asko baldin bazen.</p>

Transkripzioa

- Han tornilloak iten ziran Pekin-en.
- Bai.
- Besterik?
- “Para bombillas”, “casquillos para bombillas”. Lan hoiek zien. Gero, pasta itten zen gauza politta, biño hua ya gizonantzako zien, e? Hori ez genuen guk itten. Guk gehiena, esan dizutena, “tornillos”. Bai. Gehiena-gehiena hala itten zen. Nik lana in nun... Prentsak. Dena prentsak zien. Ta batzuk okerrago, bestiak politto, biño han [gehiena hua] itten genuen. Tornilluak, zea, arroska. Makinak ekartzen zigun arroskik gabe eta guk arroska egin, arroska egin. Hola heldu ta arroska egin. Taladro ttiki batian. Oso pollitta zen lana hua. Biño asko in behar zen eta gu berritsuak giñan! Biño langilliak´e bai, e? Bai, bai. Hori bai.
- Zenbat ordu iten zenituen?
- Ba, zortzi normalki. Biño gero zerbaittere behar genunian ta asko bihar zen, hamabi.
- Hamabi?
- Hamabi.
- Eta larunbatetan lana iten zenuten?
- Ba, lehenbizi bai. Gero ya hasi zen arratsaldian. Eta gero usten dut ya asko pasa [... asko pasa...] zela egun guziya. Biño lehenbiziko ez. Itten genuen igandia´re bai. Gero ematen ziguten oporrak. Eta lehenbizi ere izaten zien ttikiyaguak, [ez dakit] astebate o zer, ta ya gero hamabost egun´e hartzen genittun. Gehio nik ez, e. Nik ez. Nik uste dut gehio hartzen ziela geroago, baiño. Ta han hamasei urte in nittun.

6. Juanitaren lehenengo soldata

- **Erref:** ERR-049/007
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Hamabi pezeta hileko izan zuen lehenengo soldata. Ordu batzuk sartu behar izan zituen lanordutik kanpo, ezkontzeko arrea edo ezkonsaria ordaintzeko lain aterako bazuen, josten baldin bazekien ere, ez baitzuen brodatzea maite.

7. Aldea zegoen Erreterriako eta Lezoko dantzaldien artean

- **Erref:** ERR-049/008
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:19:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia
- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Lan asko eginagatik, noizean behin ateratzen zuen denbora dantzara joateko. Batzuetan Erreterriako zumardian edo "alameda"n bertan antolatzen ziren dantzaldietara joaten zen lagunekin, eta beste batzuetan inguruko herriren batera. Erreterrian dantza molde guztiak omen ziren libre, Lezon ez, ordea.

8. Gaztelera nagusi Erreterriako kaleetan barrena

- **Erref:** ERR-049/009
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:19:14. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Juanitaren gazte garaian kalean gaztelera zen nagusi eta euskaraz hitz egiteari "pellada" esaten zitzaion.

9. Aita abertzalea

- **Erref:** ERR-049/010
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Aita abertzalea zuen Juanitak eta sarritan joaten ziren batzokira. "Pospolina" izan zen Juanita, batzokiko dantza taldean, eta gerra aurreko urteetako oroitzapen goxoa gordetzen du.

10. "Pospolin" garaiko doinuak (Txori polita)

- **Erref:** ERR-049/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Juanitak "pospolin" moduan ibili zeneko doinuren bat edo beste badu gogoan, tartean "Txori polita" delakoa, baina oroitzapenak nahasita dituela dio. Izan ere, berak dioen moduan, haur izatetik heldu gisa jokatzera azkarregi igaro behar izan zuten, eta ahantzi egin zituen haur garaiko hainbat kontu.

11. Gerra piztu eta Erreteriatik Bilbora

- **Erref:** ERR-049/012
- **Iraupena:** 0:05:27. **Hasi:** 00:25:47. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Juanitak ongi gogoan du gerra piztu zenekoa. Familia osoak egin zuen alde Bilbora, Pasaiaiko portuan ontziratuta. Aita gudari joan zitzaien eta Bilbon, etxe onean egokitzeke zortea izan zuten, "Villa Egileor" zelakoan. Handik Sopuertara joango ziren gero.

12. Bonbardaketa arriskuaren aurrean tuneletara

- **Erref:** ERR-049/013
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:33:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketen mehatxua jasanezina zela kontatzen du Juanitak. Amona bera Bilbon bizi izan ziren hilabeteetan hil zitzaien, eta ehorzketa egunean ere korrika irten behar izan omen zuten hilerritik.

13. Erreteriarra itzuli bezain laster aita preso eraman zuten

- **Erref:** ERR-049/014
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:33:10. **Bukatu:** 00:38:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Ongi gogoan du Juanitak, Erreenteriara itzuli eta egun gutxira, guardia zibil bikote batek aita preso nola eraman zuen, gauerdian, Ondarretara. Astean bitan joan izan zitzaion aitari bisitan, bai eta sarritan bakarrik joan ere, atxilo egin zituen lau urtetan zehar. Gaur da eguna, Donostiara maiz joanagatik ere, barrenak Ondarretara gerturatzen uzten ez diona. Eaterako, bertan dela jakinda ere. Juanitak ez du sekula bertatik bertara ikusi Eduardo Chillidaren "Haizearen orrazia".

14. Aitaren lagun aberatsa eta Erreenteriako Arbelaiz harategia

- **Erref:** ERR-049/015
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:40:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

Juanitaren aitak, ziega berean preso zegoen lagun aberats bat egin omen zuen Ondarretako kartzelan. Irundarra omen zen laguna eta, Gabonetan, haren familiak emandako turroia jaten omen zuten kartzelan. Gogoan du, bestalde, Erreenteriako Arbelaiz harategikoek nola laguntzen zituzten zailtasun ekonomikoekin zebiltzan hainbat eta hainbat familia.

15. Nolakoa zen Ondarretako kartzela

- **Erref:** ERR-049/016
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

<p>Lehenik, bisitarien otarre eta halakoak gainbegiratzeko gunea omen zen. Sarrera handi bat ere gogoratzen du Juanitak. Aita hirugarren solairuan zela ere oroitzen du, eta harengana korrika joaten zirela, barrote artetik "atta, atta"! deika.</p>

16. Gerra garaiko eta gerra osteko otorduak

- **Erref:** ERR-049/017
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:43:47. **Bukatu:** 00:48:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra garaiko eta gerra osteko errazionamenduak ezagutu zituzten.

17. Kozinatzea gustuko eta josten jardun behar

- **Erref:** ERR-049/018
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:48:31. **Bukatu:** 00:49:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Nahiago luke Juanitak gaztetan sukaldeko lanetan aritzeko aukera eduki izan balu. Jostea ez zuen gustuko, baina horretan aritu behar, diru apur bat irabaziko bazuen.

18. Ezkon aurretik eta ondoren konfesatzea ez zen gauza bera

- **Erref:** ERR-049/019
- **Iraupena:** 0:10:18. **Hasi:** 00:49:48. **Bukatu:** 01:00:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Juanita kexu da bere gazte garaian emakumeak oso mugatuta zeudelako. Zinemara bakarrik joatea, tabernetan sartzea, mutilekin ibiltzea... Gaizki ikusiak zeuden guztiak, emakume batek eginez gero. Neska eta mutilen arteko ezkontza aurreko musua ere bekatu omen zen. Juanitak eta haren lagunek eman ematen zituzten, ordea, nahiz eta gero konfesatzera ziztuan abiatu behar izan. Barrez oroitzen ditu kontu horiek Juanitak, baina aldi berean onartzen du, konfesatu beharra traumatikoa izan zela beretzat, gazte garaian behintzat. "Ejercicios espirituales" delakoekin eta misioekin ere akordatzeko da, saio haietan pulpitutik zuzentzen zitzaien fraide argal batekin, bereziki. Sexu hezkuntza urria jaso zutela ere kontatzen du, eta haren faltan, pikardia nagusi zela dio.

19. 'Auxilio Social' eta 'Servicio Social'

- **Erref:** ERR-049/020
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:00:06. **Bukatu:** 01:03:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Auxilio Social delakoan Cara al Sol kantatu

beharra izaten zuten. Biteri kalean omen zegoen egoitza eta behar zuenari jaten ematen omen zioten. Juanita sarritan izan zen bertan. **Servicio Social**, aldiz, derrigorrezkoa omen zen ezein baimen mota lortu nahi zuen ororentzat. Hala ere, Juanitari ez zitzaion azken honetara joan beharrik egokitu.

20. Etorkin asko Erreteriarra

- **Erref:** ERR-049/021
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:03:07. **Bukatu:** 01:04:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialra

Laburpena:

Ondartxo eta inguruetan zelaia eta baratzeak nagusi ziren garaiak ezagutu zituen Juanitak. Gero, etxeak eraiki eta galiziar ugari etorri omen zen Erreteriarra.

21. Ezkondu eta lana utzi

- **Erref:** ERR-049/024
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:10:00. **Bukatu:** 01:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkondu eta lana utzi behar izan zuten Juanitak eta haren inguruko emakume askok, mila pezeta jasota.

22. Ezer gutxirekin pozik

- **Erref:** ERR-049/025
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:11:36. **Bukatu:** 01:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Jostailu eta gailu gutxi ezagutu zituen Juanitak bere haurtzaro eta gaztaroan. Oparirik txikiena ere asko estimatzen zuten.

23. Erreteriarra eta inguruko herrietako hizkerak

- **Erref:** ERR-049/026
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:14:24. **Bukatu:** 01:17:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Errenteriako, Lezoko eta Donostiako hizkerak antzekotzat jotzen ditu. Hondarribikoak beste "kanta" bat duela dio, eta ingurukoetatik, Oiartzungoa izan zaio beti ulertzen zailena. Tolosa aldekoarekin ere sumatzen du alderik. Bere hizkerari erdal kutsua ote darion pentsatzen du. Hala ere, berak egiten duen euskara eta ilobek egiten dutena asko gustatzen zaizkio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com